

EUSKAL MUSIKA XXI. MEN7DEAN

José Ignacio López de Luzuriaga

Donostiako Gorengo Kontserbatorioaren Musikologia Katedraduna

HAUSNARKETA BAT

Gaur egun Euskal Herria, mundu osoan gertatzen ari den estandarizazio kulturalaren prozesuan murgilduta dagoen hiri haundia bilakatu da. «Mass-media»-en eraginez zabaltzen diren portaera-ereduak nahi ta nahi ez sartzen zaizkigu eta gure kulturaren jarraipena bermatzeko hausnarketa sakon baten beharra gero eta premiazkoagoa ikusten da. Erreflexio hau ikuspegi anitzetatik har badezakegu ere, nik politika musikalaz soilik egingo dut neurea. Zehazki, Musika-Hezkuntza Profesionala eta Programazio Musikalei buruz.

Egitasmo honen oinarrian, gizaki eta herri guztiek ezberdinak izateko eta haien jatorrizko kulturak bizirik irauteko daukaten eskubidearen defentsa dago. Hau dela eta, 1947 urtean American Anthropological Association-ek Nazio Batuen Elkarteko «Giza Eskubideen Aldarrikapenean» sartzeko asmoz egindako proposamena nire egiten dut. Aldarrikapen horrek zera esaten zuen besteak beste: (1)

1) Gizabanakoak kulturaren bidezgaratzen du bere nortasuna. Beraz, Ezberdintasun indibidualen errespetuak ezberdintasun kulturalen onespina suposatu behar du.

2) Ezberdintasun hauen errespetuak kulturaren balorazio kualitatiboa egiteko inolako teknikarik asmatu ez denaren egiaztapen zientifikoa datza.

3) Kultura baten mailak eta balioak berauen jatorrizko kulturaren arauerakoak izanik, kultur baten sinismen edo kode moraletan oinarritzen diren enzpideak, munduko gizaki guztiengan eragina izango duen Giza Eskubideen Deklarapenetik baztertu behar dira. (2)

(1) Lecler, Gerard. *Antropología et Colonialisme*, 161-1630 orr. Fayard Argitaletxea, Paris 1972. Ikusi J. Maestre Alfonso, «Introducción a la antropología social» 285 orr. Akal Argitaletxea, Madrid 1983.

(2) Nahiz eta proposamen hau N.B.E.an onartua ez izan, bistan dago indar colonizatzaileen kontra jotzen zuela, txalogarria oso izan zen. Melville Herkovitzen zuzendaritzapeko American Anthropological Association-ek agertu zuen asmoa. Haren kontra bota zituzten argudioak, kanibalismoaren onarpena, e.a., joku inuxenteak dira gure zibilizazioak sarraskiak egiteko erekutsi duen gaitasunarekin erkatzen baldin badugu.

Hau dela eta, erizpide honekin bat ez datozenentzat, edo Euskal Herriaren etorkizunean sinisten ez dutenentzat, edota, besterik gabe, gure kultura ezabatu nahi dutenentzat, komunikazio honek ez du zentzurik.

1. MUSIKA-HEZKUNTZA PROFESIONALA

1.1. Ikasketen orientabidea

1537. urtean, «Santa Maria di Loreto», dakigunez munduko lehendabiziko kontserbatorioa eratu zenetik gaurdaino, kontserbatorioek musika akademiko ofiziala erakusteari ekin diote. Hala nola, nobleziaren musika eta Frantziako Iraultzaz geroztik burgesiaren musika.

Apaz eskola edo seminarioetan ikus dezakegun bezala, bi dira ere kontserbatorioaren helburu nagusiak: a) Ikasleei ezagupen tekniko-musikalak erakustea, eta b) musika akademiko ofizialean edo giza talde boteretsuei atxekituta bizi eta garatu egin diren espresio musikaletan ikasleak murgildu edo inizatzea.

Seminario bezala diot zeren ohizko kontserbatorioetan bultzatzen den «MUSIKA»-rekiko jarrera erlijioso antzekoa da. Pentsakera erlijiosoan gertatzen den bezala hemen ere iharduera esangurez aberatsa da. Gainera eta monoteismoan gertatzen den bezala kontserbatorioetan ere musika BAT da oro har: ikuspegiak estuak dira, haietatik kanpo sortzen diren bestelako adierazpen edo posibilitateak baztertzen direlarik. Ikasleek, konposagile historiko edo ospe haundiko musikarien bizitzak heroi mitiko edo santuen biziak balira bezala ikasi behar dituzte eta, noski, berdin gertatzen da haien obrek. Kontserbatorioek defendatzen duten bailo nagusia fidelitasuna da. Musikaren egilea sakratua da eta beste gizaki arruntengan somatzen ez ditugun esangurak eta birtuteak egiaztatutzat ematen ditugu ohizko artisten kasuetan. Haien obrak ere, sakratuak dira eta inolako transgresiva gerta ez dadin, ikasleek ikasi eta ñabardura edo detalle guztiak kontutan hartuz errepikatu egiten dituzte eredu majikoak direlakoan. Norbaitek arau tinoko hauek apurtuko balitu, zigorra jasoko luke, hala nola, suspentsioa, mespretxua edo bazterketa. Hau deia eta, partitura

sinismen dogma bilakatzen da: aldaezina, iraunkor eta giza-gainekoa den produktu bukatua, begirune osoz eta tradizioak agintzen duen eran bakarrik interpretatu daitekena.

Kontserbatorioetan ariketa teknikoak egitekotan, ikasleek gehien bat erreperitorio tradizionalan oinarritutako ariketak egingo dituzte eskola koranikoan legez. Beraz, bai ariketak egiterakoan eta baita erreperitorioa ikasterakoan iraganetik datorkigun kulturari irau erazten diogu. Museoetan egiten den bezala, obrak eta ideiak errekuuperatu eta ahal izanez gero mantendu egiten ditugu, bide batez haien jarraipena ziurtatuz.

Iharduera hau guztiz baikorra izango litzateke kontserbatorioaren eginkizunen alor bat izango balitz, nahiz eta oso garrantzitsua izan. Aitzitik, egungo adierazpenak eta teknologiak gutxietsi edo teknologia berriak gune marjinal bat betetzen duenean zerbait aldatu behar dela uste dut. Kontserbatorioak ezin du jarraitu iraganari modu horretan atxekituta. Musika kontzeptua zabaldu behar dugu. Musika lehengo zentzu mugatuan mantentzea oker bat da. Gainera, lehengo eta oraingo musika «hutsa» egin dezakegu, baina batez ere beste elementuak erabiltzen dituen musika.

Lehen baino gehiago musika irudiari, imajinari eta orokorrean ikuskizunari lotuta dago: argiak, irudiak, jantziak, elementu deigarriak, eskenografia, e.a., eta logikoa denez, aldaketa honek aldaketa filosofiko eta estetiko eskatzen du, derri gorrez. Gure gizartea irudiaren gizartea da eta gure kultura, kultura-ikuskitzuna. Hau dela eta, ezin dugu lehengo ikusmoldeekin jarraitu. Irratia, telebista eta orokorrean «Mass-medi»-ek oraingo hazkundeaz ezagutu baino lehen, edota gizakiak mendian edo basoan sakabanaturik bizi zirenean gerta zitekeen jarrera, patologikoa edo gutxienez ulergaitza bilakatzen da gizarte aldakor, urbano eta industrializatu batean mantentzen denean. Besterik gabe, egoera honek gizartearen dinamika ukatzea suposatzen du.

Baina berriztatze honek ere badu guretzat oso garrantzitsua den beste alor bat. Aurreko aipamenaren ardatza denbora edo dinamika soziala izan bada ere, ezin dugu ahaztu Euskal Herrian bizi garela. Honela bada, honi buruz zerbait esan behar dugu.

Kontserbatorioak edo musika eskolak gizarte batean txertaturik daudenez, gizarte horretan higitzen diren korronte intelektualekin batera mugitu behar dira. Ezin ditugu artean edo kultura orokorrean dauden mugimenduak ahaztu. Beraz, bereziki euskal kultura berpizten saiatzen ari direnekin bat egin behar genuke. Horrela bada, lehenengo pausoa euskara musika eskoletako didaktikan sartzea izango litzateke. Ez da nahikoa «borondate onez» euskaraz klaseak ematea. Kontserbatorioetan euskara normalizatu behar da eta hortarako plan bat taitutzea ezinbestekoa da. Gero, era guztietako euskal musika berria sortzeko ahaleginak egiteaz gain, ikasketa programetan ohizko euskal musikak agerpen garrantzitsuagoa izan behar luke.

Bilakaera historikoa gero eta azeleratuagoa bizi duen gizartean murgilduta gaude. Aintzinako eskemak gero eta zaharragoak iruditzen zaizkigu eta etorkizunari berma osoz aurre egiteko geure burua prestatu behar dugu. Hau dela eta, beste garaietan hezkuntza musikalaren helburu nagusia, patroikulturalen transmisioa ziurtatzea bazen ere, gure garaiko hezkuntza, instrumentatuta izan behar da gehien bat. Hau da, hezkuntzaren bidez ikasleari gizartea ulertzeko baliabideak heldu behar zaizkio: gizakiak, historiarekiko lotura ahaztu barik, gizarte berri eta aldakor honetan kokatzeko, ailegatzen zaizkion ikurrak interpretatzeko eta testuinguru aldakor batean sormena

garatzeko erreferentziak behar ditu. Hau da hain zuzen musika hezkuntzari dagokion betebeharra.

1.2. Musika Hezkuntza eta «L.O.G.S.E.»a (3)

Baina ikasketen orientabidea ez da Musika-hezkuntza daukan arazo bakarra. Hezkuntza Sistemaren Ordenaketa Orokorreko Legea, (LOGSE espainolez) indarrean sartzeak ikasketa musikalak normaltzeko aurrerapauso bat suposatu du. Aurrerapauso bat diot, zoritxarrez, ikasketa musikalak «Enseñanzas de Régimen Especial» direlakoan barnean sartu bait dituzte.

Hala ere, lege honek Musika Hezkuntza eta Hezkuntza Orokorren arteko urruntasuna murrizteaz gain, elkarren arteko loturak edukitzeko aukera ematen du. Zehazki, «LOGSE»-ak Kontserbatorioko Goi-Mailako Titularen eta Unibertsitateko Lizentziaturaren parekotasun legala bermatzeaz gain, bi instituzio hauen arteko harreman formalak edukitzeko bidea xaxatzen du lehendabiziko aldiz.

Era berean, ikasketa musikalean orain arte nahastuak ageri diren mailak banandu egingo dira etorkizunean. Beraz, arazo berri bat ailegatzen zaio oraingo kontserbatorioan arazo administratiboak. Benetan, instituzio honen barneko funtzionamendua ezagutzen duen edonork banaketa hau ia ia ezinezkoa dela esango luke, batez ere Goi-Mailako Ikasketeei dagokienez.

Behar bada, ikasketa planak berregiratu eta gero Oinarriko eta Erdi-Mailako ikasketek haien konponbidea eduki ahal izango dute oraingo kontserbatorioetan: maila honetako ikasketak burutzeko eskaera haundia da hiri guztietan, diru sarreak eta eralkipenak oreka arrazonagarri batean higitzen dira eta hezkuntza honek eskatzen duen irakaslegoaren maila teknikoa egokia da oro har.

Goi-Mailako Hezkuntzaren egoera ordea, ez da berdina Arestian aipatu dudana bezala, orain arteko ikasketa musikalean mailak nahasiak egon dira. Horrela eta gaien arauera, ikasle batek maila ezberdinak ikasketak batera egin ditzake, edo irakasle batek maila ezberdinak ikasleei dagozkien ikasgaiak eman diezazkizkie. Era honetan katedradun batek Goi-Mailako ikasle gutxi badu. Erdi edo Oinarriko mailako ikasleei azaltzen dizkie bere ikasgaiak, bere lan-orduak betetzen dituelarik. Gainera, mailaren banaketak ez dakar metodologiaren aldaketa eta derrigorrezko gai osagarriak kenduta, karrera baten kurso guztiak eredu berdina jarraitzen dute, lehendabizikotik azkenerarte.

Egoera hau, bertan behera geldituko da, edo behintzat hori espero dugu, «LOGSE»-a indarrean jartzearekin batera. Ikasketa mailak banandu egiten badira, Goi-Mailako ikaslegoaren kopuruan beherakada nabarmena ikusi ahal izango dugu. Hau dela eta, musika ikastetxeen berregituraketa ezinbestekotzat jotzen dugu.

Gaur egun Baskongadetan hiru badira Goi-Mailako ikasketetan ezagutza ofiziala duten kontserbatorioak, (bat probintzia bakoitzeko), hemendik aurrera hirurak mantentzea ezinezkoa izango da: hiruentzako ikasle kopuru eskasa izango delako; hezkuntza musikala moderno batek behar dituen baliabideak, materialak eta humanoak, oso garestiak direlako; eta, azkenik, oraingo modelo dagoen espezializazioaren eskasia gaintu behar dugulako.

Beraz, atal honen ondorio gisa hau esan dezakegu:

(3) «LOGSE», Lege Organikoa 1/1990.eko urriaren 3.ean, (1990.eko urriaren 4an «B.O.E.» delakoan argitaratua).

1) Kontserbatorioan orain arte bizi izan dugun isolamendua apurtu behar dugu, bai soziologikoki eta baita kulturalki.

2) Orain arte ezagutu dugun norabide bakarreko hezkuntza musikala zabaldu behar dugu, egungo adierazpen eta egiteko erak kontutan hartuz.

3) Probintzialismo estua gaindituz, Goi-Mailako Musika Hezkuntza, Baskongadetan osatzeke dagoen Goi-Mailako Musika-Eskola Tekniko batean bakarrik emango litzateke: posible denean oraingo kontserbatorioetako irakaslegoa aprobetxatuz eta honen ezean irakaslego berria kontratatuz.

4) Berrigituraketa honekin batera, musika irakaskuntzan dauden ikasketa planak gaurkotu beharko lirateke, arestian aipatu ditudan erizpideak aintzakotzat hartzen ditugularik.

Hau da Europako maila teknikora hurbiltzeko eta XXI. mendean berma minimoarekin sartzeko daukagun bide bakarra.

2. KULTURA MUSIKALAREN ZABALTZE POLITIKA

Arestian Euskal Herria hiri handia dela esan dut eta ez ditut baserriak edo herri txikiak aipatu. Izan ere, badakigu baserriek, herri txikiak eta orokorrean nekazal munduak hein handi batean bizirik dirauela, baina kulturaren borroka, hau da, euskal kulturaren etorkizuna dagoeneko ez da esparru horretan jokatzeko. Euskal Herria ez da jadanik lurralde bukoliko hura. Gaur, gure lurra autopistez, ibai kutsatuz, zonalde industrialez eta etxe pilotuz josita dagoen lurralde arazotsu eta konplexua da. Oro har, lurralde industrializatu guztiak bezala. Beraz, euskal nortasunaren jarraipena, euskal kulturaren etorkizuna, gure ekoizpen kulturalak gizarte berri honetan txertatzeko azalduko duen gaitasunaren arauerakoa izango da.

2.1. Kultura, gizarte baten ikurra

Euskal Herriak, egunero eta eten gabe eraikitzen ari den nazioa den heinean, kanpoko onespina behar du, eta onspen hori gauzatzeko ezinbestekoa da kulturalki ezaguna eta bereiztua izatea. Hau dela eta, beste nazioekiko bat politikan eta baita kultura alorrean ere daukagun aldeak konplexurik gabe azaldu behar ditugu.

Politika alde batera utzita, kulturaren gure herriaren jatortasuna aldarrikatzen duten elementuak sortu eta zabaldu behar ditugu. Lotsarik gabe, munduan euskaldunak esistitzen garela oihukatu behar dugu, eta hortarako kultura da baliapide garrantzitsuena. Behar bada, artearen garbitasuna defendatzen dutenek artearen honelako erabilpenaren kontra jarriko dira. Beraien eskubidea da hori. Hala ere, modernitatearen izenean eta akademizismo hutsean oinarrituta egiten dituzten testuinguru, historia, eduki eta «aberririk gabeko» obrak, gure egoera larrian dagoen gizarte batean bultzatzea luxoa da. Une honetan guretzat onartezina den luxoa bat.

Gure kulturaren krisia ez da edonolako krisia. Kasu batzuetan, geurea hil ala biziko ekologia sozialaren arazoa dugu. Horrela bada, produkzio kulturala gure eskuan ez dagoen merkatuaren legeari nahita uzteak, herri bezala gure buruaz beste egitea izango litzateke. Beraz, guk geure eredu kultural propioa eratu behar dugu geure historia, geure gizarte, geure estetika, geure funtsa eta geure egoera larria kontutan hartzen duen euskal kultura. Beti ere, XX. mende bukaeran bizi garelako jakinik.

Orokorki, egitasmo hau gauzatzeko elementu kulturalen sailkapen diskriminatorio bat egin beharko genuke. Horrela, adierazgarriak izan litezkeen milaka elementu kulturalen artean, gutxi batzuek ez genituzke aukeratuko: esanguratsuenak eta ikusgarrienak direnak, gizartearen jatortasuna ber-

matzen dutenak eta orokorrean inguruko gizarteengandik ezberdintasunak azpimarratzen dituztenak.

Jarrera hau ez da batere berria. Aitzitik, erizpide batekin edo bestekin gure artean XVIII. mendean hasita eta gaurdaino etengabeko saioak egin dira antzeko helburua sortzeko. (4)

Euskal nazionalismoaren hastapenetan, euskal gizarte nekazaritzari lotuta zegoen neurri handi batean. Ondorioz, nazio eraikuntzarako behar zituzten ikurak edota sinboloak nekazal mundutik hartutako elementu kulturez osatu ziren nagusiki: kasu batzutan aldaketak egin gabe, jite propio mantenduz; bestetan elementuak isladatuz eta apainduz; eta beti iradokimenerako edo hausnarketarako abiapuntu bezala hartuz. Ohizko musika-tresnak, doinuak, eritmoak, dantzak, jantziak, c.a. beren ohizko esangurez ezezik beste batzuek aberastu ziren: aurrerantzean, euskaltasunaren ikurak edota ordazkariak izango zirenak.

Sabino Arana berak zera zioen artikulu batean: «La espatadantza es un baile eminentemente viril y majestuoso. No se animarán los pueblos a formar cuadrillas de espatadantzaris? (5) Beste kasu batzuetan, ordea, txistua hartzen dute aipagai. Hona hemen P. de Larrañagak ziona: «El txistu es la representación de la raza en sus festividades», edo «El txistu será siempre la manifestación armoniosa del modo de ser social del vasco». (6) Bestalde, hor dauzkagu musika akademiko alorrean egin ziren saioak ere: Gundiren «Amaia», Usandizagaren «Mendi-Mendiyan», e.a. denek abiapuntutzat edo erreferentziatzat herri kantuak daukatelarik. Honi buruz zera esaten digu Arozamenak: «A Usandizaga y a Guridi (Bilboko «Sociedad Coral»-ek) les encomienda la tarea de enlazar la importancia musical del pueblo vasco con la que tuvo cuando la polifonía de los siglos XV y XVI se llamaba Juan de Anchieta (sic) (7).

Jarrera hau, logikoa denez, garai hartako politikari lotuta zegoen. Praktikan, eredu kultural baten bultzada isladatzen du. Jite propioa emanez, «Euskal Kultura» eratu eta sentierazi nahian zebiltzan garai hartako euskaldunak eta, dudarik ez, beraien eragina izan zuten (8).

2.2. Politika kulturalaren eremua

Nahiz eta jokaera honen helburua Euskal Herria nazio bezala finkatzea izan, berez eremu batean bakarrik eragiteko zuzendua zegoen: geografikoki Euskal Herria eta soziologikoki bertan jaiok zirenei zegokiena. Guda garaian eta batez ere Franco boterean zegoen bitartean, zerbait egin zuten nazionalistek kanpoan euskal nortasuna ezagutarazteko, baina ekintza horiek marginalak izan ziren (9).

(4) Ikus «Conde de Peñaflorida. Historia de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País» R.I.E.Ven, Tomo 21, 3.z., 316-333 orr. eta Tomo 22, 443-482 orr., 1930-1931 urtekoak. Baita ere, Práiz Bartolome de Santa Teresa, «Euskal Erlijietako...» Iruña 1816 urtean. Edo, besteak beste, Juan Ignacio de Iztueta, Gipuzkoako dantza gogoangarriak, Ignacio Ramón Baroja Argitaletxea, Donostia 1824 edo La gran Enciclopedia Vasca Argitaletxeak egindako berrargitalpena. Bilbo 1968.

(5) Arana, Sabino «Baserritarra» aldizkarian, 1897 eko abuztuako alean.

(6) Larrañaga, P. de. «El Chistu», Txistulari aldizkariaren 8. alean 1-2 orr., Maiatza-Ekaina, Bilbo 1929.

(7) Arozamena, Jesús María «Jose Maria Usandizaga» y la bella época donostiarra» Donostiako Aurrezki Kutxak argitaratua 168 orr. Donostia 1969.

(8) Gai honi buruz ikusi Chueca Intxusta, Jesús P. «Euskal nazionalismoak herri nortasunaren eraikuntzan folkloeari emandako zeregina, (1931-1939)». Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra, XXII. urtea, 55z., Iruina 1990.

(9) Ikusi Chueca Intxusta, Jesús P. aipatutako artikuluan.

Politika honen ondorioz, Euskal Herrian bertan eta sentimenduetan oinarriturik aurrerapen nabarmenak egin ziren. Euskaldunak beraien ikurrez laister jabetu ziren era sakonean barneratuz. Horrela, txapelarik gabe «Gernikako Arbola» kantatzen zutenean zirrara sentitu eta malkoak zerizkien bitartean, haien bizitzatik kanpo gelditzen ziren hori eta gorri koloreak batzen zituzten objektuak edo bestelako ikurrak, oraindik ikus dezakegun bezala. Bestalde eta orokorrean, euskalduna izatearen kontziantzia politikoa areagotu egin zen.

Kanpoan, ordea, ondorioak ez dira hain garbiak izan. Agintan nazionalisten helburua munduan euskal gizakia esistitzen zela jakineraztea bazen ere. Euskal Herria ez zen Espainiatik ezta Frantziatik ere bereizten. Horrela, kanpoan daude euskal elkarteetatik at, gure herria eta kultura ezezaguna izaten jarraitu zen. Beraz, helburu hori betetzera zuzendu zituzten ahalegin apalek porrot egin zuten neurri haundi batean. Nazioarteko arazoak edo gure politikoen gabezia zela medio, Euskal Herria ez zen jalgi nazioarteko plazerara.

Urteak pasa ahala, gauzak aldatuz joan dira egoera soziala aldatu den bezala. Gaur egun, politikoki lehen baino askoz ere ezagunagoak gara hemendik kanpo, onerako edo txarrerako. Kulturalki, ordea, guztiz ezezagunak gara munduan eta hutsune hori betetzeko ez dago politika zehatz bat.

Eusebio Larrañagak, Eusko Jaurlaritzako Zabalkuntza Kulturalaren Zuzendakari pertsonalki esan didanez, (10) haiek ez daukate plangintza zehatz bat zabalkuntza kulturalan dagokionez. Orokorrean, haien zioa kultura «Baskongadetako gizarereangana hurbiltzea da. Kultura zabaldu nahi dute askatasun osoz, xehetasun jakinik eman gabe. Beraz, eragile sozialak dira programazioa taituzten dutenak. Hau dela eta, Kultur Sail honek daraman politikan, bi dira joera nagusiak. a) gizarerean txertaturik dauden elkarte kulturalen eginkizunak ekonomikoki laguntzea, egitaraua eta bestelako zehaztasunak elkarte hauen gainean utziz, (11); eta b) antolakuntzan parte zuzena hartzea haien aportazio ekonomikoaren arauera (12).

Kanpora begira zerbait egin da: Madrilen «Euskadi a escena» programaren barruan eginiko Euskadiko Orkestraren kontzertua; Juan Antonio Urbeltzek zuzentzen duen dantza taldeak eginiko «Zortziko» ikuskizuna; ea. Baina, honelako kasu isolatuetatik at ez dago kanpoan euskal kultura zabaltzeko inongo plangintzarik, ezta, momentuz, egiteko asmorik ere.

Gauzak horrela, zerbait egin behar dela bistan dago. Nazioarte mailan daukagun presentzia eza kaltegarria da oso eta nolabait arazo hau konpondu behar dugu.

Hala ere, nazioartekoa ez da daukagun arazo bakarra. Barnean gauzak ez daude guk nahi dugun bezala. Nazioarte mailan ezagutza eta onspena behar dugu baina baita ere Euskal Herri moderno honetan. Horrela, proposatzen dugun kultura, gizarte konplexu honek sentitzen dituen beharrei erantzun egoki bat emateko gai ere izan behar da. Identifikazio ikurrak behar ditugu, baina ikur gaurkotuak.

Mende honen hasiera nekazal munduko elementu kultural bezala horniturik euskaltasunaren ikur izan zitezkeen ereduak osatu bazituzten ere, folklorismoa hain zuzen, oraingo jarrerak bestelako elementuak hartu behar ditu kontutan. Hirietan sortzen diren adierazpenak, giza talde edo «leinu» berri eta ez-

berdinei atxekituak, egungo sentsibilitate barmen adierazieak dira: pilatuak bizi diren gizakien sentsibilitatea, noraezean dabilzan gizakien sentsibilitatea, haien bizia behin-behinean antolatu behar duten eta elkartasun eza barneratuta daukaten gizakien sentsibilitatea, beste pertsonetikiko komunikazio eskasa duten eta, orokorrean, arazo esistentzialak dituzten gizakien sentsibilitatea.

Gizaki honek sortzen dituen adierazpenak, ezohizkoak izan arren, guk geureganatzeaz gain jite propioaz janzten lagundu beharko genuke. Jadanik ez da posible nazioarteko korrontetik at ibiltzea. Hortaz, homologa ditzagun gure espresio-eko elementu bereizleak sortuz posible denean, edo dauden espresioetan elementu horiek txertatuz besterik ez bada.

Baina honek ez du esan nahi aspaldiko agerpeideak baztertu behar ditugunik. Alderantziz, nekazal munduan lotuta dauden zenbait elementu kulturalak, euskal klasikoei, beraien tokia izango dute gizarerean, gure patrimonio historikoaren lekukoak direlako eta sormenari dagokionez, elementu erabilgarriak edo estetika berriaren erreferentziak izan daitezkeelako.

3. PROPOSAMEN BAT POLITIKA MUSIKAL BERRIA TAITUZTEKO

Beraz, aintzinakoei egin zuten bezala, datorren mendeari begira kultura musikala bultzatzeko politika sendoa bat taitutu behar da. Euskal Herrian bertan eta nazioarte mailan eragina izango duen politika; egungo gizaki kontsumista eta industrial honek inposatzen dituen baldintzak eta sorkuntzak kontutan hartzen dituen politika, eta, azkenik, euskal izaera azaltzen duen politika.

Hau dela eta, hauek izango lirateke politika kultural berri honen jarrera nagusiak: 1) instituzioen arteko koordinazioa lortzea, 2) kanpoarekiko erlazioa indartzea era orekatu batean, 3) ekoizpen artistikoaren kalitatea kontrolatzea; eta 4) erizpide zabalez, euskal kulturari buruzko hausnarketa teorikoak bultzatzea.

1) Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak, Udaletxeak eta iniziatiba pribatu batzuk bultzaturik sortu diren ekintza musikalko franko, inongo koordinaziorik gabe gauzatu dira, bai helburuari dagokionez eta baita programazio edo antolakuntza alorrean ere. Horrela, indarrak batu beharrean edo baliapide eskasak era egoki batean erabili beharrean, errekursoak sakabanatu eta perspektiba galdu egin da. Beraz, ezinbestekoa da maila guztietan koordinazioa areagotzea bai helburuari dagokionez eta baita programazioan ere.

2) Nazioarte mailan esperientzia ez da ere oso baikorra izan. Alde batetik ahula izan delako, intentsitate gutxiakoa, eta bestetik baldintzarik gabekoa izan delako, hau da, elkartruke politizaren ondorio izan beharrean, konplexuz egindako politika oparoa izan delako: onspen politikoaren truke egiten den oparien politika, hain zuzen ere. Honen aurrean, euskal adierazpenak Europako zirkuitoetan sartzeko ahaleginak egin beharko ditugu orain arte erabili ez den erizpide bat sartuz: elkartrukearena.

3) Banaketa administrazioak, programazio alorrean, eta kontserbatorioen zahartzeak, hezkuntzan, ekoizpen musikalarik noraeza ekarri du. Sakabanaturik sortzen diren produktuen arteko batzu kalitate handikoak diren bitartean besteak «boloak» izan dira, hau da, subentzio publikoa jasotzeko eta inolako asmo kulturalik gabe «ex-profeso» sortzen diren behin-behineko iniziatibak. Arazo hau konpontzeko, arestian proposatu dudana Musika Eskolen berregituraketa gauzatzea eta emanaldi musikalen gutxieneko kalitate kontrola jartzea ezin-

(10) 1991.eko martxoaren 13an edukiriko elkarrizketa telefonikoan esanda.

(11) Asociación Bilbaina de Amigos de la Opera»-rekin edo Euskal Herrian dauden Abesbatza Elkarte-ekin egiten duten bezala.

(12) Donostiako Hamabostaldi Musikala-rekin gertatzen den bezala.

bestekoa da. Europako zirkuitoetan sartu nahi baldin badugu, behar beharrezkoa da gure adierazpenen kalitatea goratzea.

4) Jadanik ezin da programazio bat egin berari buruz hausnarketa sakon bat egin gabe edo une politikoaren arauera. Kultur politika epe luzera begira pentsatu behar dugu. Beraz, gizartearen dinamikotasunean eta ekologia kulturean oinarriturik, euskal musika zehaztu behar dugu. Gure kulturaren elementu esanguratsuenak edo deigarrienak; gure sentimena edo sentsibiltatea, gure izaera eta balioak gogoeta honen objektu izan behar dira. Hortik aterako da gure gaurko «txistua» eta «danborra», gure gaurko «Ikurrina», eta «Gernikako Arbo-

la», gure gaurko «Amaia» eta «Mendi-Mendiyan», e.a. Hone-lako adierazpenak sortzeko gai ez bagara, akabo Euskal Gizakia eta berarekin batera akabo Euskal Herria.

Iharduera honetan, euskal kultura berpizteko interesatuta gauden guztiok parte hartu beharko genuke. Gauden egoeran ezin dugu «bete lana» egin edo politika dela medio indar preziatuak baztertu. Badakit denok «mamuak» edonon ikusten ditugula. Badakit ere, proposamen hau errealietatik kanpo bizi den pertsonarena irudi daitekela. Hala ere, daukagun egoera larriaren aurrean euskaldun sentitzen garenek saio bat egin beharko genukela uste dut.